

2023-24ko DEIALDIA

ATZERRIKO MEDIKUNTZA TITULUEN HOMOLOGAZIOA

DEIALDI HONEK AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEA EMATEN DU SOILIK

DATAK

Frogaren data: 2024ko martxoak 4

Eskaerak aurkezteko epea: 2024ko urtarrilak 9tik 16ra, biak barne.

PLAZAK

Indarrean dagoen araudiaren eta ikastegiko irakaskuntza-gaitasunaren arabera eskainitako plazak:

- Proba teorikoen behar bakarria duten ikasgaiak: 20 plaza
- Proba teoriko eta praktikoak edota soilik proba praktikoak behar dituzten irakasgaiak: 0 plaza

Irakasgaien zerrenda eta bibliografía web-orri honetan kontsulta daitezke:

<https://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/grado-medicina>

DOKUMENTAZIOA

Eskabideak aurkezteko epean, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- MECen ebazpena. Fotokopia konpultsatua.
- NAN, pasaporte edota egoitza-txartelaren kopia.
- Eskabide-orria behar bezala beteta.
- Beste unibertsitate batera aurkeztu bazara eta gainditutako irakasgaiak badituzu, lortutako kalifikazioen ziurtagiri originala.

Eskatutako agiriak aipatutako baldintza, modu eta epeetan auzketan ez dituen deialditik kanpo geratuko da.

Dokumentazioa aurkezteko helbidea:

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Bizkaiko Campusa: Sarriena Auzoa z/g, 48940 Leioa, Bizkaia.

Dokumentazioa aurkezteko erak:

- Aurrez aurre medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko idazkaritzan hitzordua eskatuz:

<https://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/secretaria-cita-previa>

- UPV/EHUko egoitza elektronikoaren bitartez (<https://egoitza.ehu.eus/es>)

Prozedura: Dokumentazio orokorraren erregistro elektronikoa

Jasotzailea: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea U02000292 (Bizkaiko Ikastegiak)

Gida: [Solicitud genérica \(ehu.eus\)](https://www.ehu.eus/solicitud-genérica)

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabiliz.

2024ko urtarrilaren 23an Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko webgunean argitaratuko dira azterketara onartuen zerrenda eta dagokion tasa (153,95 €) ordaintzeko jarraitu beharreko prozesua. Behin betiko onartuen zerrendan eskatzaile bakoitzak egin beharreko irakasgai edo materialak zehaztuko dira. Akatsak zuzentzeko epea **2024ko otsailaren 1era** artekoa izango da.